

# BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

3691

*EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 29koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita EPE-Ibaia Enpresa-elkartearen estatutuak aldatzeari dagokion dokumentazioa gordailutu dela, eta horren berri ematen baita (Gordailuaren kodea: 76/1/00140).*

Erakunde Sindikalen Estatutuak Gordailutzeko Bulego Publiko honetan espedientea hasi da aldaketari dagokion dokumentazioaren eta EPE-Ibaia enpresa-elkartearen estatutuen gordailua dela-eta. Espediente hori ikusirik, ebazpena eman da, honako aurrekari hauek oinarri hartuta:

## AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2025eko maiatzaren 5ean aurkeztutako dokumentazioaren bidez, EPE-Ibaia enpresa-elkartearen estatutuak aldatzeari dagokion dokumentazioa gordailutzeko eskatu da.

Bigarrena.– Aurkeztutako dokumentazioa bat dator Sindikatu eta Enpresa Erakundeen Estatuak Gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuan ezarritakoarekin.

Hirugarrena.– Horren jarduketa-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da, eta eremu funtzionala estatutuetan ezarritakoa izango da.

Laugarrena.– 2025eko maiatzaren 19an dokumentazio osagarria eskatu zen, eta errekerimendu hori legez ezarritako moduan eta epeetan bete da.

Egitate horiei zuzenbideko oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Sindikatu- eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeko eskumena organo honi esleitu zaio azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 13.m) artikuluan –Dekretu horrek Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du–.

Bigarrena.– Administrazio-prozedura honetan aplikatu behar den araudi substantiboa xedapen hauetan dago jasota: apirilaren 1eko 19/1977 Legean eta Sindikatu eta Enpresa Erakundeen Estatutuak Gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuan.

Hirugarrena.– Gordailutzeko aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, zuzenbidezkoa dela egiaztatu da, eta, horrenbestez, bidezkoa da gordailutzeko onartzea EPE-Ibaiaren Zuzendaritza Batzordearen 2025eko martxoaren 12ko bilera-aktari dagokion dokumentazioa (bilera horretan egoitza soziala aldatzea onetsi zen) eta EPE-Ibaia enpresa-elkartearen estatuei dagokien dokumentazioa, non onetsitako aipatutako egoitza-aldaketa baitago jasota, eta egitate horren publizitatea egitea.

Aipatutako oinarriak eta oro har aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, honako hau

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gordailutzeko agintzea bai egoitza soziala aldatzea onetsi zen EPE-Ibaiaren Zuzendaritza Batzordearen 2025eko martxoaren 12ko bileraren aktari dagokion dokumentazioa,

2025eko abuztuaren 29a, ostirala

bai EPE-Ibaia enpresa-elkartearen estatuei dagokien dokumentazioa, non onetsitako aipatutako egoitza-aldaketa baitago jasota.

Bigarrena.– Gordailutze hori EHAAn argitara emateko agintzea, Sindikatu eta Enpresa Era-kundeen Estatutuak Gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako moduan.

Hirugarrena.– Ebazpen honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Laugarrena.– Edozein interesdunek aztertu ahal izango du gordailututako agiria, baita kopia eskatu ere. Agiria aurkaratu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salaren aurrean, Lan-arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legean (2011ko urriaren 11ko BOE) xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 29a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,  
MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE.